IFK/CIF P2006900A
Tel. 943 344034
Luz./Ext. 932
Donibane kalea, 19
20110 Pasaia

KONTRATAZIOA
kontratazioa@pasaia.net

ADMINISTRAZIO-BALDINTZA BEREZIEN AGIRIA, ZERBITZUAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO, ESLEIPENERAKO PREZIOAZ GAIN HAINBAT IRIZPIDE KONTUAN IZANGO DITUENA

PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACIÓN DE SERVICIOS POR PROCEDIMIENTO ABIERTO Y UTILIZANDO VARIOS CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN ADEMAS DEL PRECIO

I. KONTRATUAREN EDUKIA

1. KONTRATUAREN XEDEA

Kontratu honen xedea hauxe da: PASAIAKO UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN ONDARE-ERANTZUKIZUNA ETA ONDASUNETAKO KALTEAK ESTALTZEKO ASEGURUAK zerbitzua, kontratu-balioa duen baldintza teknikoen agirian datozen zehaztapen teknikoekin bat etorriz.

Lizitazioa, esleipenaren ondorioetarako, zati hauetan banatuko da, eta proposamena aurkez daiteke sorta baterako edo guztietarako.
Interesdunek I. Eranskina bete beharko dute, eta sorta bakoitzari dagokion zatian euren eskaintza adierazi. Sorta batera bakarrik aurkezten badira, beste sortari dagokion zatia hutsik utzi besterik ez dute.

1. SORTA: PASAIAKO UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN ONDARE-ERANTZUKIZUNA ESTALTZEKO ASEGURUA

2. SORTA: PASAIAKO UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN ONDASUNETAKO KALTEAK ESTALTZEKO ASEGURUA

Kontratu honen izaera pribatua da, SPKLren 25. artikuluaren arabera, 26. artikuluan ezartzen baita honako kontratu hauek izango dutela izaera pribatua: Objektutzat 66100000-1etik 66720000-3rako CPV erreferentzia-zenbakiko zerbitzu finantzarioak dauzkaten zerbitzu-kontratuak, eta 79995000-5etik 79995200-7rako eta 92000000-1etik 92700000-8rako CPV erreferentzia-zenbakiko sorkuntza eta interpretazio artistiko eta

I. CONTENIDO DEL CONTRATO

1. OBJETO DEL CONTRATO

El contrato que con base en el presente pliego se realice, tendrá por objeto el servicio de: “SEGUROS DE RESPONSABILIDAD PATRIMONIAL Y DE DAÑOS EN BIENES DEL AYUNTAMIENTO DE PASAIA Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS”, de conformidad con del pliego de condiciones técnicas, que tendrá carácter contractual.

A efectos de la adjudicación, la licitación se divide en los lotes que a continuación se indican, siendo posible presentar oferta por uno o todos los lotes. Los interesados deberán cumplimentar en el anexo I la oferta que corresponda al lote al que liciten. En el caso de licitar únicamente a uno de los lotes deberán dejar en blanco la parte del anexo I que corresponde al otro lote.

LOTE Nº 1: SEGURO DE RESPONSABILIDAD PATRIMONIAL DEL AYUNTAMIENTO DE PASAIA Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS

LOTE Nº 2: SEGUROS DE DAÑOS EN BIENES DEL AYUNTAMIENTO DE PASAIA Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS

El contrato tiene naturaleza de contrato privado, al amparo del articulo 25 de la LCSP, por remisión expresa del artículo 26, que dice que tendrá carácter privado los siguientes contratos: Los contratos de servicios que tengan por objeto los servicios financieros con número de referencia CPV de 66100000-1 a 66720000-3 y los que tengan por objeto la creación e interpretación artística y literaria y los de espectáculos con

literarioa eta ikuskizunak dauzkatenak, salbu eta 92230000-2, 92231000-9 eta 92232000-6 CPVkoak dauzkatenak objektutzat

Kontratuaren objektuaren kodea, CPV nomenklaturaren arabera:

1. SORTA: 66516400-4 Erantzukizun zibileko aseguru orokorren zerbitzuak.
2. SORTA: 66515000-3 Kalteen gaineko aseguru zerbitzuak
66515100-4 Suteetarako aseguruen zerbitzuak.

Baldintza teknikoen agirian ezartzen dira poliza horien baldintzak.

Ezarritako klausulez gain, lizitatzaileek klausula osagarriak eskain ditzakete; baina ez dute baliorik izango agiri horretan ezarritako asegurudunen eskubideen aurkakoak edo murriztaileak badira. Hala ere, onartu egingo dira lege-aginduen, eta printzipio, definizio edo ohartarazpen orokorren transkripzio huts diren klausulak; halaber, baldintza teknikoen agirian ezarritako baldintzak beste edozein baldintza orokorren gainetik daude, lizitazio honetako aseguru-modalitate guztien baldintza orokorren gainetik, alegia.

número de referencia CPV de 79995000-5 a 79995200-7, y de 92000000-1 a 92700000-8, excepto 92230000-2, 92231000-9 y 92232000-6.

Codificación de la nomenclatura CPV correspondiente al objeto del contrato:

LOTE N.º 1: 66516400-4 Servicios de seguros de responsabilidad civil general.
LOTE N.º 2: 66515000-3 Servicios de seguros de daños
66515100-4 Servicios de seguros de incendio.

Se establecen en el pliego de prescripciones técnicas las condiciones de dichas pólizas.

Los licitadores podrán ofrecer cláusulas complementarias a las establecidas, pero carecerán de validez aquellas que contradigan o sean limitativas de los derechos de los asegurados establecidos en dicho pliego. Se aceptarán, no obstante, las cláusulas que supongan mera transcripción o referencia a preceptos legales imperativos y a principios, definiciones o advertencias de uso general, entendiéndose asimismo que las condiciones establecidas en el pliego de condiciones técnicas deberán prevalecer sobre cualesquiera otras de los condicionados generales de cada una de las modalidades de seguro objeto de esta licitación.

2.- EPEA

Kontratuaren iraupena 2 urtekoa izango da.

Indarrean dagoen Sektore Publikoko Kontratuen Legeak 29.4.a) artikuluan honako hau xedatzen du: kontratuaren mugaegunean ez denean kontratu berririk egin, kontratistak eman beharreko prestazioaren jarraitutasuna bermatzen duenik, kontratazio-organoarentzat aurreikusten ezinezkoak ziren eta adjudikazio-prozeduran gertatu diren gertakarietatik heldu diren gorabeheren ondorioz, eta interes publikoko arrazoiak daudenean prestazioa ez eteteko, jatorrizko kontratua luzatu ahalko da kontratu berria egikaritzen hasten den arte eta, nolanahi ere, gehienez ere bederatzi hilabetez, kontratuaren gainerako baldintzak aldatu gabe; horretarako baldintza izango da, betiere, kontratu berrirako lizitazio-iragarkia jatorrizko kontratua amaitzeko data baino gutxienez ere hiru hilabete lehenago argitaratu izana.

Lehen urterokoa 2021eko uztailaren 1etik abenduaren 31ra bitartekoak izango da; hurrengo urterokoek, berriz, urte natural osoa hartuko dute barne.

2.- PLAZO

La duración del contrato será de 2 años.

Cuando al vencimiento de un contrato no se hubiera formalizado el nuevo contrato que garantice la continuidad de la prestación a realizar por el contratista como consecuencia de incidencias resultantes de acontecimientos imprevisibles para el órgano de contratación producidas en el procedimiento de adjudicación y existan razones de interés público para no interrumpir la prestación, se podrá prorrogar el contrato originario hasta que comience la ejecución del nuevo contrato y en todo caso por un periodo máximo de nueve meses, sin modificar las restantes condiciones del contrato, siempre que el anuncio de licitación del nuevo contrato se haya publicado con una antelación mínima de tres meses respecto de la fecha de finalización del contrato originario

La primera de las anualidades comprenderá el período que va desde el 1 de julio al día 31 de diciembre de 2021; las siguientes anualidades, en cambio, comprenderán el año natural completo.

Hala ere, uztailaren 1erako kontratua oraindik formalizatu ez bada, egikaritze-epea kontratua formalizatzen denetik hasiko da.

Nolanahi ere, eskaini beharreko prezioa urte osoari dagokiona izango da, nahiz eta lehenengo urtean ordaindu beharreko prima izango den kontratua sinatzenFPR den egunetik 2021eko abenduaren 31ra arteko epeari dagokiona.

3.- KONTRATUAREN AURREKONTUA

3.1. LIZITAZIOAREN OINARRIZKO AURREKONTUA.

Poliza bakoitzerako lizitazioaren oinarrizko aurrekontua hau da:

1. sorta: ondare-erantzukizuneko asegurua: 40.000 euro urteko (BEZetik salbuetsia).

2. sorta: ondasunetako kalteen aseguruak: urteko 44.000 euro (BEZetik salbuetsia).

Honako hauek sartzen dira: Aseguruen Konpentsazio Partzuergoari dagokion prima, Aseguru Primen gaineko Zerga eta Aseguru Entitateen Batzorde Likidatzailearen errekargua.

Lizitatzaileek euren eskaintzetan prezio hori hobetzeko aukera dute.

Espresuki aurreikusten da kontratua aldatzeko aukera, udalak kontratuaren iraunaldian eskuratzen dituen lokalak edo higiezinak dagokion polizari gehitzeko.

Halakoetan polizaren gehigarri bat egingo da, eta dagokion ordainagiria ordainduko da. Higiezinaren aseguru-polizaren prima kalkulatzeko kontuan hartuko da higiezin berriari esleitzen zaion balioa. Halaber, lokalak edo higiezinak ken daitezke, horiek saldu edo eraitsiz gero. Halakoetan, dagokion itzulketa egin beharko da, kendu den eraikinagatik ekitaldian ordaintzeko geratzen den zatiari dagokiona.

No obstante, si a 1 de julio no se hubiese formalizado el contrato, el plazo de ejecución comenzará a partir de la formalización del mismo.

En cualquier caso, el precio a ofertar será el correspondiente a cada anualidad completa, sin perjuicio de que la prima a abonar respecto a la primera anualidad será correspondiente al período transcurrido desde la formalización del contrato hasta el 31 de diciembre de 2021.

3.- PRESUPUESTO DEL CONTRATO

3.1. PRESUPUESTO BASE DE LICITACIÓN

El presupuesto base de licitación para cada póliza es el siguiente:

LOTE Nº 1: Seguro de Responsabilidad Patrimonial 40.000 euros anuales(exento de IVA).

LOTE Nº 2: Seguros de Daños en Bienes.....44.000 euros anuales (exento de IVA).

Están incluidos: la prima correspondiente al Consorcio de Compensación de Seguros, el Impuesto sobre Primas de Seguros (IPS) y el recargo de la Comisión Liquidadora de Entidades Aseguradoras (CLEA).

Esta cantidad podrá ser mejorada por los licitadores mediante bajas en sus ofertas.

Expresamente se prevé la posibilidad de modificación de contrato por poder adicionarse locales o inmuebles que adquiera o construya el Ayuntamiento durante la vigencia del contrato, como objeto de la póliza correspondiente.

En este caso, se emitirá un suplemento de póliza y se pagará el recibo correspondiente debiendo calcularse la prima de seguro de la póliza de los inmuebles en relación con el valor que se atribuya al nuevo inmueble. Asimismo, se podrán suprimir locales o inmuebles, en caso de venta o derribo. En tal caso, se deberán llevar a cabo el extorno que corresponda por la parte del ejercicio pendiente en relación con el inmueble suprimido.

3.2. KONTRATUAREN BALIO ZENBATETSIA

Kontratuaren balio zenbatetsia 168.000 eurokoa da (BEZ gabe), prozedura eta kontratazio-organoa zehazteko ondorio bakarrerako.

3.2. VALOR ESTIMADO DEL CONTRATO

El valor estimado del contrato se fija en 168.000 euros (sin IVA), a los únicos efectos de determinar el procedimiento y el órgano de contratación.

4 - FINANTZIAZIO-BIDEAK

Esleipendunak esleipen-akordioan ezartzen den prezioa jasoko du.

Kontratuaren prezioa 01.224.99.920.00 partidaren kontura ordainduko da.

Halaber, aurrekontu gaietan eskumena duen organoak konpromisoa hartzen du, etorkizuneko ekitaldietako aurrekontuetan dagozkion kredituak gordetzeko.

4.- VÍAS DE FINANCIACIÓN

El adjudicatario percibirá el precio que se establezca en el correspondiente acuerdo de adjudicación.

El precio del contrato se sufragará a cargo de la partida 01.224.99.920.00 .

Asimismo, el órgano competente en materia presupuestaria se compromete a reservar los créditos oportunos en los presupuestos de los ejercicios futuros que resulten afectados.

5.- ORDAINTZEKO ERA

Kontratuaren prezioa ordaintzeko, egindako lanaren fakturak aurkeztu beharko dituzte hilero, eta banku-transferentzia bitartez egingo da ordainketa, fakturak aurkeztu eta hogeita hamar egunera.

Primak ordaintzeaz gain, aseguru-etxeak kontratua indarrean dagoen bitartean izandako istripuei dagozkien kalte-ordainak ordaindu beharko ditu.

5.- FORMA DE PAGO

El pago del precio del contrato se realizará semestralmente mediante la presentación de facturas correspondientes y tras la conformidad del órgano correspondiente se abonarán mediante transferencia bancaria a los treinta días de su presentación.

Con independencia del pago de las primas, la compañía aseguradora vendrá obligada al pago de las indemnizaciones por siniestros que se hayan producido en el período de vigencia del contrato de seguro.

6.- PREZIOAK BERRAZTERTZEA

Kontratu honetan ez da bidezkoa prezioak berraztertzea, SPKLren 103. artikuluan ezartzen den moduan.

6.- REVISIÓN DE PRECIOS

En el presente contrato no procederá la revisión de precios, según lo establecido en el artículo 103 de la LCSP.

7.- BERMEAK

Kontratuaren esleipendunak behin betiko bermea eratu beharko du, hartutako konpromisoak beteko dituela ziurtatzeko. Horren zenbatekoa izango da esleipen-prezioaren % 5ekoa , BEZ gabe, bider kontratuaren aldia (bi urte).

Bermea ezartzeko epea esleipenaren jakinarazpenean adieraziko da, eta berme hori ezarriko da, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen 108. artikuluan ezarritako edozein bitartekoren bidez. Bermea ezarri izanaren egiaztapena bitarteko elektronikoen bidez egin daiteke. Baldintza hori ez bada betetzen

7.- GARANTÍAS

El adjudicatario del contrato, a fin de garantizar el cumplimiento de las obligaciones contraídas está obligado a constituir una garantía definitiva por la cuantía equivalente al 5% del importe de adjudicación excluido el IVA multiplicado por el período del contrato (dos años).

El plazo para la constitución de la citada garantía será el que se señale en la notificación de la adjudicación y podrá constituirse en cualquiera de los medios establecidos en el artículo 108 de la LCSP La acreditación de su constitución podrá realizarse por medios electrónicos. De no

lizitatzaileari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik, bere aldeko esleipena ez da burutuko.

Berme-epea amaitzen denean, esleipendunari bermea itzuliko zaio, osorik edo, bidezkoa bada, zati batean, baldin eta kontratuko betebehar guztiak beterik badaude. Itzulketa hori goian aipatutako Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 111. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz egingo da.

cumplirse este requisito por causas imputables al licitador, la adjudicación a su favor no surtirá efecto.

La devolución de la garantía, tanto total como parcial en su caso, se realizará de acuerdo con lo dispuesto en el artículo 111 de la LCSP, una vez vencido el plazo de garantía y cumplidas por el adjudicatario todas sus obligaciones contractuales.

8. KONTRATUA BURUTZEA

Kontratua esleipendunaren gain eta kontura burutuko da.

Kontratatutako zerbitzua baldintza-agiri honetan eta baldintza teknikoen agirian ezarritakoaren arabera gauzatuko da. Kontratua Administrazioaren zuzendaritza, ikuskapen eta kontrolaren pean burutuko da, eta Administrazioak idatziz nahiz ahoz erabili ahal izango ditu ahalmen horiek.

Kontratistari edo haren agindupekoei egotz dakiekeen egite edo ez-egiteren baten ondorioz, Administrazioak uste izaten badu kontratua behar bezala burutzea kolokan dagoela, kontratua behar bezala burutu dadin beharrezkotzat jotzen dituen neurriak har daitezela agindu ahal izango du.

Bereziki, aseguru-etxeak betebehar hauek hartuko ditu bere gain:

• Udalaren aurrean enpresa ordezkatuko duen pertsona bat izendatzea, Gipuzkoan bizi dena, aseguru-etxearen izenean aritzeko nahikoa gaitasun duena.

• Udalari ematea kontratua egoki egikaritzeko eta betetzeko beharrezkoak dituen zerbitzuengatik, esate baterako, laneko bilerengatik edo informazio-bilerengatik. Esleipendunak ez du eskubiderik izango zerbitzu horiengatik ordainketa osagarririk jasotzeko.

Aseguru-etxeak hitzematen du eskatzen zaizkion txosten eta proposamenak egingo dituela. Udalak eskatzen dion informazioa emango du polizaren klausulei buruz, eta, istripuren bat gertatzen bada, udalari eta aseguruaren onuradunari laguntza eta aholkularitza emango dizkio.

8. EJECUCIÓN DEL CONTRATO

La ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista.

La prestación del servicio contratado se llevará a cabo con sujeción a las condiciones estipuladas en este pliego, y a los pliegos de prescripciones técnicas particulares. La ejecución del contrato se desarrollará bajo la dirección, inspección y control de la Administración, quien ejercerá estas facultades tanto por escrito como verbalmente

Cuando por actos u omisiones imputables al contratista o a personas de él dependientes se comprometa la buena marcha del contrato, la Administración podrá exigir la adopción de las medidas que estime necesarias para conseguir o restablecer el buen orden en la ejecución del mismo.

En particular la compañía aseguradora asumirá las siguientes obligaciones:

• Designar una persona representante ante el Ayuntamiento, con domicilio en Gipuzkoa, con poder y capacidad bastante para obligarse en nombre de la entidad aseguradora.

• Prestar al Ayuntamiento, sin derecho a contraprestación o indemnización económica suplementaria, los servicios profesionales que se estimen necesarios para el correcto desarrollo y cumplimiento del contrato, tales como la asistencia a reuniones de trabajo o informativas.

La compañía aseguradora se compromete a emitir los informes y propuestas que se le soliciten. Facilitará la información que el Ayuntamiento reclame sobre cualquiera de las cláusulas de la póliza y, en caso de siniestro, prestará al Ayuntamiento y a la persona beneficiaria del

seguro su asistencia y asesoramiento.

• Aseguru-etxeak agian ematekoak diren kalte-ordainen balorazioa eta kuantifikazioa egingo du, kontratuaren egikaritze-epean gertatzen diren istripu guztietan; alde batera utzita, dagokion espedientea bideratu ondoren, aseguru-hartzailearen erantzukizuna deklaratzen den edo ez, eta sortutako kaltearen zenbatekoa frankizia aplikagarriaren zenbatekoa baino txikiagoa bada ere.

• La compañía deberá realizar la correspondiente valoración y cuantificación de las eventuales indemnizaciones de todos los siniestros que sucedan durante la ejecución del contrato, con independencia de si tras la tramitación del expediente oportuno se declara la responsabilidad o no del tomador o asegurado, y aun cuando la cuantía del daño producido sea inferior al importe de la franquicia aplicable.

• Halaber, aseguru-etxeak kalte-ordainaren balorazio ekonomikoa egin beharko du, udalak hala eskatuz gero; nahiz eta aseguru-etxeak uste izan udalak ez duela erantzukizunik.

• La compañía deberá realizar asimismo la correspondiente valoración económica de la correspondiente indemnización en el caso de que Ayuntamiento así lo solicite, a pesar de que la compañía aseguradora estime la no responsabilidad del Ayuntamiento.

• Aseguru-etxearen bitartekariari dagozkion ordainsariak ordaintzea.

• Abonar a la persona mediadora de seguros de la entidad aseguradora las retribuciones correspondientes.

SPKLren 62.1. artikuluan aurreikusitakoarekin bat, kontratuaren arduradun izendatzen da Haur, Nerabe eta Gazteen Sustapen Sailaren arduradun teknikoa.

De conformidad con lo previsto en el artículo 62.1. de la LCSP, se designa como responsable del contrato al/la técnico/a correspondiente del Departamento de Contratación .

9.- KONTRATISTAREN LAN EGINKIZUNAK

Kontratista behartuta dago Gizarte Segurantzari eta Laneko segurtasunari eta higieneari buruzko legezko xedapenak betetzera; udalak ez du erantzukizunik izango hori betetzen ez bada.

9.- OBLIGACIONES LABORALES DEL CONTRATISTA

El contratista está obligado al cumplimiento de las disposiciones legales vigentes en materia laboral, de Seguridad Social y de seguridad e higiene en el trabajo, quedando el Ayuntamiento exonerado de responsabilidad por este incumplimiento.

12.- ONARPENA ETA BERME-EPEA.

Kontratu honetako helburua den zerbitzua ematen bukatu eta gehienez ere hilabeteko epean kontratuaren onarpen formala eta positiboa egingo da.

Kontratu honen izaera dela-eta, ez da berme-eperik ezartzen.

10.- RECEPCIÓN Y PLAZO DE GARANTÍA

En el plazo máximo de 1 mes desde la finalización de la prestación objeto del contrato se producirá el acto formal y positivo de recepción.

A tenor de la naturaleza de este contrato, no se establece plazo de garantía.

11. EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA

Udalak esleipendunari eska diezaioke dokumentazioa euskaraz aurkezteko. Hori eskatu ezean, dokumentazioa bi hizkuntzetan aurkeztuko da.

Bai espedienteak bideratzeko arduraduna eta bai artekaria edo agentea gai izango dira udalarekin (edo herritarrekin) harremana izateko bi hizkuntza

11. NORMALIZACIÓN DEL USO DEL EUSKERA

El Ayuntamiento tendrá la opción de exigir a la adjudicataria que la documentación se le aporte en euskera. Sin esta exigencia, la documentación será bilingüe.

Tanto la persona encargada de la tramitación de los expedientes como el corredor o agente deberán ser capaces de mantener las relaciones con el

ofizialetan, bai idatziz eta bai ahoz. Udalak aukeratuko du hizkuntza.

Ayuntamiento (o, en su caso, los ciudadanos) en cualquiera de las dos lenguas cooficiales, a elección del Ayuntamiento, tanto en comunicaciones escritas como verbales.

12. KONTRATUA AMAITZEKO ARRAZOIAK

Kontratua suntsiaraziko da Aseguruen Kontratuei buruzko 50/1980 Legean ezarritako arrazoiengatik, eta aseguru bakoitzerako espresuki ezartzen diren arrazoiengatik, edo aseguruen arloan indarrean diren legeek ezarritako arrazoiengatik.

Kontratua suntsiarazteko erabakia kontratazio-organoak hartuko du, ofizioz nahiz kontratistak eskatuta.

Kontratua suntsiarazteak aseguruen arloko legeetan aurreikusitako ondorioak izango ditu.

Nolanahi ere, kontratistaren erruz kontratua bete gabe gelditu eta suntsiarazten bada, konfiskatu egingo zaio bermea, eta, gainera, sortutako kalte eta galeren kalte-ordainak eman behar dizkio udalari, behin betiko bermearen gainetik doan zenbatekoraino. Nolanahi ere, eratutako bermea galdu, itzuli edo ezereztea bidezkoa den edo ez adierazteko, berariazko aipamena jaso behar da kontratua suntsiarazteko erabakian.

12. CAUSAS DE RESOLUCIÓN DEL CONTRATO

La resolución el contrato se producirá por cualquiera de las causas establecidas en la Ley 50/1980, de Contrato del Seguro, así como aquellas que, en su caso, se establezcan expresamente para cada seguro y por cualesquiera otras determinadas en la legislación vigente en materia de seguros.

La resolución del contrato se acordará por el órgano de contratación, de oficio o a instancia del contratista en su caso.

La resolución del contrato producirá los efectos previstos en la legislación de seguros.

En todo caso, cuando el contrato se resuelva por incumplimiento del contratista, le será incautada la garantía y deberá, además, indemnizar al Ayuntamiento los daños y perjuicios ocasionados en lo que exceda del importe de la garantía definitiva. En todo caso, el acuerdo de resolución contendrá pronunciamiento expreso acerca de la procedencia o no de la pérdida, devolución o cancelación de la garantía que se hubiese constituido.

II.- KONTRATATZEKO JARDUNBIDEA

II.- PROCEDIMIENTO PARA CONTRATAR

13. ESLEITZEKO PROZEDURA

Kontratu honen esleipena modu irekian egingo da eta ondoren zehazten diren irizpideak hartuko dira oinarritzat:

13.- PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN

La adjudicación del presente contrato se realizará por procedimiento abierto, utilizándose como criterios de adjudicación, los que a continuación se concretan

1. SORTA: PASAIAKO UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN ONDARE-ERANTZUKIZUNA ESTALTZEKO ASEGURUA

LOTE Nº 1: SEGURO DE RESPONSABILIDAD PATRIMONIAL DEL AYUNTAMIENTO DE PASAIA Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS

Balorazio automatikorako irizpideak: Gehienez 100 puntu.

1. Proposamen ekonomikoa..... gehienez, 80 puntu.

Lizitatzaileek aurkeztutako eskaintza ekonomikoak honako prozedura honen bitartez baloratuko dira:

Be = ∑ [Ji/Max(Ja, Jmax)] x Bamax

Non:
Bamax = Prezioa kontuan hartuta emango den gehieneko puntuazioa
Ja = Jaitsiera adierazgarria, kontratu honetan % 5ean zehaztua
Be = Eskaintza bakoitzari emandako puntuazioa edo balorazioa
Jmax = Gehieneko jaitsiera lizitaziora aurkeztu direnetatik
Ji = Eskaintza bakoitzari dagokion jaitsiera
Max (Ja,Jmax) = Adierazitako balio bi horien artean gehienekoa edo maximoa

2. Polizen baldintzak: gehienez ere, 20 puntu

Frankizietan beherapenak egitea eta aseguratutako kapitalak handitzea honela baloratuko dira:

- Beherapena baldintza teknikoen agirian ezarritako frankizia orokorrean (1.500 €): 10 puntu emango zaizkio prezio txikiena eskaintzen duen proposamenari, eta gainerakoak proportzionalki baloratuko dira.
- Kapitalen igoera istripuetan (5.000.000€-an ezarria baldintza teknikoen agirian): 5 puntu emango zaizkio prezio handiena eskaintzen duen proposamenari, eta gainerakoak proportzionalki baloratuko dira.
- Biktima bakoitzeko azpimuga handitzea(ustiapenaren oinarrizko estaldura eta lan istripuen erantzukizun zibilari dagokionez 450.000 €-ko kopurua jaso da Plegu Teknikoan): 3 puntu emango zaizkio eskaintza handienari eta gainerakoak proportzionalki baloratuko dira.
- Urteroko azpimuga handitzea (10.000.000 €-ko kopurua jaso da baldintza teknikoen agirian): 2 puntu emango zaizkio eskaintza handienari, eta gainerakoak proportzionalki baloratuko dira.

Irizpide horien balorazioa honako formula honen bidez egingo da:

Pl= Ob/Ol x dagozkion puntuak

Formula horretako zeinuak:
Pl: lizitatzailearen puntuazioa

CRITERIOS DE VALORACIÓN AUTOMÁTICA: MÁXIMO 100 PUNTOS

1. Propuesta económica: máximo 80 puntos.

Para la valoración de las ofertas económicas presentadas por las licitadoras se procederá conforme al siguiente procedimiento:

Vi = ∑ [Bi/Max(Bs,Bmax)] x Vmax

Donde:
Vmax = Puntuación máxima a otorgar por el criterio de precio
Bs = Baja significativa, que se determina en este contrato en el 5%
Vi = Puntuación o valoración otorgada a cada oferta
Bmax = Baja máxima de entre las presentadas a la licitación
Bi = Baja correspondiente a cada oferta
Max (Bs,Bmax) = Representa el valor máximo de entre los dos indicados.

2. Condiciones de las pólizas: maximo 20 puntos

Se valorará la rebaja en franquicias y el incremento de capitales asegurados, de la siguiente forma:

- Rebaja en la franquicia general establecida en el Pliego Técnico (1.500€): se asignarán 10 puntos a la propuesta que sea menor, valorándose el resto proporcionalmente.
- Incremento de capitales en siniestro (establecido en 5.000.000€ en el Pliego Técnico): se asignarán 5 puntos a la propuesta que sea mayor, valorándose el resto proporcionalmente.
- Incremento del sublímite por víctima (cobertura básica de explotación y RC accidentes de trabajo establecido en 450.000€ en el Pliego Técnico): se asignarán 3 puntos a la propuesta que sea mayor, valorándose el resto proporcionalmente.
- Incremento del límite por anualidad (establecido en 10.000.000€ en el Pliego Técnico): se asignarán 2 puntos a la propuesta que sea mayor, valorándose el resto proporcionalmente.

La valoración de estos criterios se llevará a cabo mediante la fórmula:

Pl= Ob/Ol x puntos que correspondan

Donde:
Pl: Puntuación licitador

Ob: eskaintzarik merkeena
Ol: lizitatzailearen eskaintza

Ob: Oferta más baja
Ol: Oferta licitador

2. SORTA: PASAIAKO UDALAREN ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEN ONDASUNETAKO KALTEAK ESTALTZEKO ASEGURUA

Balorazio automatikorako irizpideak:
Gehienez 100 puntu.

1. Proposamen ekonomikoa …….. gehienez, 95 puntu.

Lizitatzaileek aurkeztutako eskaintza ekonomikoak honako prozedura honen bitartez baloratuko dira:

Be = ∑ [Ji/Max(Ja, Jmax)] x Bamax

Non:
Bamax = Prezioa kontuan hartuta emango den gehieneko puntuazioa
Ja = Jaitsiera adierazgarria, kontratu honetan % 5ean zehaztua
Be = Eskaintza bakoitzari emandako puntuazioa edo balorazioa
Jmax = Gehieneko jaitsiera lizitaziora aurkeztu direnetatik
Ji = Eskaintza bakoitzari dagokion jaitsiera
Max (Ja,Jmax) = Adierazitako balio bi horien artean gehienekoa edo maximoa

2. Polizen baldintzak: gehienez ere, 5 puntu

Frankizietan beherapenak egitea eta aseguratutako kapitalak handitzea honela baloratuko dira:

- Beherapena baldintza teknikoen agirian ezarritako frankizia orokorrean (300 €): 5 puntu emango zaizkio prezio txikiena eskaintzen duen proposamenari, eta gainerakoak proportzionalki baloratuko dira.

Irizpide horien balorazioa honako formula honen bidez egingo da:
Pl= Ob/Ol x dagozkion puntuak

Non:
Pl: lizitatzailearen puntuazioa
Ob: eskaintzarik merkeena

LOTE Nº 2: SEGUROS DE DAÑOS EN BIENES DEL AYUNTAMIENTO DE PASAIA Y SUS ORGANISMOS AUTÓNOMOS"

CRITERIOS DE VALORACIÓN AUTOMÁTICA:
MÁXIMO 100 PUNTOS

1. Propuesta económica: máximo 95 puntos.

Para la valoración de las ofertas económicas presentadas por las licitadoras se procederá conforme al siguiente procedimiento:

Vi = ∑ [Bi/Max(Bs,Bmax)] x Vmax

Donde:
Vmax = Puntuación máxima a otorgar por el criterio de precio
Bs = Baja significativa, que se determina en este contrato en el 5%
Vi = Puntuación o valoración otorgada a cada oferta
Bmax = Baja máxima de entre las presentadas a la licitación
Bi = Baja correspondiente a cada oferta
Max (Bs,Bmax) = Representa el valor máximo de entre los dos indicados.

2. Condiciones de las pólizas: maximo 5 puntos

Se valorará la rebaja en franquicias y el incremento de capitales asegurados, de la siguiente forma:

- Rebaja en la franquicia general establecida en el Pliego Técnico (300€): se asignarán 5 puntos a la propuesta que sea menor, valorándose el resto proporcionalmente.

La valoración de estos criterios se llevará a cabo mediante la fórmula:

Pl= Ob/Ol x puntos que correspondan

Donde:
Pl: Puntuación licitador
Ob: Oferta más baja

OI: lizitatzailearen eskaintza

SPKLren 147.2. artikuluan xedatutakoarekin bat, kontratua esleitzeko irizpideak aplikatu ondoren, berdinketarik balego, honako gizarte-irizpideak aplikatuko dira hurrenkera honetan, eskaintzak aurkezteko epea bukatzen den uneari dagozkionak:

a) Enpresa bakoitzaren plantillan ezintasuna duten edo gizarte-bazterkeria egoeran dauden langileen portzentaje handiena; berdinketarik balego, lehentasuna emango zaio plantillan ezintasuna duten langile finkoen kopuru handienari, edo plantillan lan-munduratzen ari den langile kopuru handienari.

b) Enpresa bakoitzaren plantillan aldi baterako kontratuen portzentaje txikiena.

c) Enpresa bakoitzaren plantillan dagoen emakume portzentaje handiena.

d) Aurreko irizpideak aplikatu ondoren, berdinketa izango balitz, zozketa egingo da.

Berdinketa desegiteko irizpide horiek ezartzeko ondorioetarako, lizitatzaileek alderdi horiek egiaztatuko dituzte dagozkion lan-kontratuekin eta Gizarte Segurantzaren kotizazio-agiriekin, eta adierazitako gizarte-irizpide horiek egiaztatzeko zuzenbidean onartzen diren bestelako agiriekin.

Berdinketa desegiteko irizpideak egiaztatzeko agiriak berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko ditu lizitatzaileak, ez lehenago.

EZOHIKO EDO NEURRIZ KANPOKO BALIOAK DAUZKATEN ESKAINTZAK

Ezohiko edo neurriz kanpoko balioak dauzkaten eskaintzak soilik proposamen ekonomikoari dagokion irizpidearen arabera baloratuko dira.

Hasiera batean, neurriz kanpokotzat edo ausartegitzat joko dira kasu hauetan dauden eskaintzak:

1. Lizitatzaile bakarra aurkeztu denean, eta proposamena lizitazioaren oinarrizko aurrekontuaren azpitik 25 portzentaje-unitate baino txikiagoa denean.

OI: Oferta licitador

De conformidad con lo dispuesto en el artículo 147.2 LCSP, el empate entre varias ofertas tras la aplicación de los criterios de adjudicación del contrato se resolverá mediante la aplicación por orden de los siguientes criterios sociales, referidos al momento de finalizar el plazo de presentación de ofertas:

a) Mayor porcentaje de trabajadores con discapacidad o en situación de exclusión social en la plantilla de cada una de las empresas, primando en caso de igualdad, el mayor número de trabajadores fijos con discapacidad en plantilla, o el mayor número de personas trabajadoras en inclusión en la plantilla.

b) Menor porcentaje de contratos temporales en la plantilla de cada una de las empresas.

c) Mayor porcentaje de mujeres empleadas en la plantilla de cada una de las empresas.

d) El sorteo, en caso de que la aplicación de los anteriores criterios no hubiera dado lugar a desempate.

A efectos de aplicación de estos criterios de desempate, los licitadores deberán acreditarlos, en su caso, mediante los correspondientes contratos de trabajo y documentos de cotización a la Seguridad Social y cualquier otro documento admitido en derecho que acredite los criterios sociales anteriormente referidos.

La documentación acreditativa de los criterios de desempate a que se refiere el presente apartado será aportada por los licitadores en el momento en que se produzca el empate, y no con carácter previo.

OFERTAS CON VALORES ANORMALES O DESPROPORCIONADOS

Las ofertas con valores anormales o desproporcionados únicamente se apreciarán sobre el criterio de valoración de “Propuesta Económica”.

Se considerarán, en principio, desproporcionadas o temerarias las ofertas que se encuentren en los siguientes supuestos:

1.Cuando, concurriendo un solo licitador, sea inferior al presupuesto base de licitación en más de 25 unidades porcentuales.

2. Bi lizitatzaile aurkezten direnean, eta eskaintzarik txikiena bestearen azpitik 20 portzentaje-unitate baino txikiagoa denean.

3. Hiru lizitatzaile aurkezten direnean, eta aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren azpitik 10 unitate portzentual baino txikiagoa denean eskaintza. Hala ere, batez bestekoa kalkulatzeko, eskaintzarik altueraren zenbatekoa ez da kontatuko, baldin eta batez bestekoaren gainetik 10 unitate portzentual baino handiagoa bada. Nolanahi ere, neurrigabekotzat joko dira batez bestekoaren azpitik 25 portzentaje-unitate baino beherago dauden eskaintzak.

4. Lau lizitatzaile edo gehiago aurkezten direnean, eta aurkeztutako eskaintzen batez besteko aritmetikoaren azpitik 10 portzentaje-unitate baino gehiago jaisten direnean eskaintzak. Hala ere, eskaintzetako batek batez besteko hori baino 10 portzentaje-unitatetik gora baditu; beste batez besteko bat kalkulatuko da, aipatutako kasu horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik. Nolanahi ere, gainerako eskaintzak hiru baino gutxiago badira, kopuru txikiena duten eskaintzen artean kalkulatuko da batez bestekoa.

2.Cuando concurran dos licitadores, la que sea inferior en más de 20 unidades porcentuales a la otra oferta.

3.Cuando concurran tres licitadores, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No obstante, se excluirá para el cómputo de dicha media la oferta de cuantía más elevada cuando sea superior en más de 10 unidades porcentuales a dicha media. En cualquier caso, se considerará desproporcionada la baja superior a 25 unidades porcentuales.

4.Cuando concurran cuatro o más licitadores, las que sean inferiores en más de 10 unidades porcentuales a la media aritmética de las ofertas presentadas. No obstante, si entre ellas existen ofertas que sean superiores a dicha media en más de 10 unidades porcentuales, se procederá al cálculo de una nueva media sólo con las ofertas que no se encuentren en el supuesto indicado. En todo caso, si el número de las restantes ofertas es inferior a tres, la nueva media se calculará sobre las tres ofertas de menor cuantía.

14.- KONTRATAZIO MAHAIA

Honako hauek osatuko dute Kontratazio Mahaia:

Burua:
- Lore Suarez Linazasoro / Ordezkoa: Izaskun Gomez Cermeño

Kideak:
- Aitziber Latasa Sorondo / Ordezkoa: Idoia Arévalo Benito.
- Erika Lopetegi Suarez /Ordezkoa: Edurne Ugalde Arruti.
- Jose Mitxelena Zubizarreta / Ordezkoa: Josu Salgado Perez.

Mahaiaren idazkaria: Larraitz Arbelaiz Garmendia / Ordezkoa: Manex Ralla Arregi.

14.- MESA DE CONTRATACIÓN-

La Mesa de Contratación la constituirán los siguientes miembros:

Presidente:
- Lore Suarez Linazasoro. / Suplente: Izaskun Gomez Cermeño

Vocales:
- Aitziber Latasa Sorondo / Suplente: Idoia Arévalo Benito.
- Erika Lopetegi Suarez / Suplente: Edurne Ugalde Arruti.
- Jose Mitxelena Zubizarreta / Suplente: Josu Salgado Pérez

Secretario de la mesa: Larraitz Arbelaiz Garmendia / Suplente: Manex Ralla Arregi.

15. KONTRATATZEKO GAITASUNA

Zuzenbideko eta jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko zein juridikoek parte hartu ahal izango dute kontratazio-jardunbide horretan, baldin eta beren ekonomia- eta finantza-kaudimena eta fidagarritasun tekniko edo profesionala frogatzen badituzte, eta kontratatzeko debekuren bat ez badute, Sektore Publikoko Kontratuen Legean adierazitako arrazoiak direla eta. Kaudimena egiaztatzeko eta ebaluatzeko bideak agiri honen 21.5. klausulan ezarritakoak izango dira.

Pertsona fisiko edo juridikoek bere kabuz edo baimendutako ordezkarien bitartez kontratatu ahal izango dute.. Ordezkari baten bidez kontratatuz gero, askietsitako ahalordea erabili beharko dute. Pertsona juridiko baten ordez bertako kideren bat azaltzen denean, ordezkari izateko ahalmena daukala egiaztatu beharko du dagozkion egiaztagirien bitartez. Esleipendunaren ordezkariak ere ezin izango du kontratatu, baldin eta lehen aipatutako debekuak badauzka.

Pertsona juridikoak kontratuen esleipendun izan daitezke, soilik kontratu horien prestazioak haiek berezkoak dituzten helburu, xede edo jarduera-eremuaren barruan badaude, haien estatutu edo sortze-arauen arabera.

Enpresariek, gainera, kontratu hau burutzeko eska daitekeen gaitasun enpresarial edo profesionala izan beharko dute.

Aurreko ataletan adierazitako kontratatzeko gaitasun, kaudimen eta debekurik ezaren baldintzak eskaintzak aurkezteko azken egunean bete behar dira, eta kontratua egiteko unean bere horretan iraun behar dute.

16.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA ETA EPEAK

Kontratazio honen espedientea, bai eta horrekin batera doazen agiri teknikoak ere, honako leku, ordutegi eta epean aztertu ahal izango dira: udal honetako Idazkaritzan (Donibane kalea, 19, behea) 8:00etatik 14:00etara laneguneta n, lizitazioaren iragarkia Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epea bukatu arte.

15. CAPACIDAD PARA CONTRATAR

Podrán tomar parte en este procedimiento de contratación las personas naturales o jurídicas que se hallen en plena posesión de su capacidad jurídica y de obrar, acrediten su solvencia económica, financiera y técnica o profesional y no estén incursas en ninguna de las prohibiciones para contratar establecidas en la LCSP. La solvencia se acreditará de acuerdo con los medios establecidos en la cláusula 18 de este pliego.

Asimismo, podrán hacerlo por sí o representadas por persona autorizada, mediante poder bastante otorgado al efecto. En caso de contratar por medio de algún representante, deberán utilizar un poder bastante otorgado específicamente a tal efecto. Cuando en representación de una persona jurídica concurra algún miembro de la misma, deberá justificar documentalmente que está facultado para ello. Tanto en uno como en otro caso, al representante le afectan las causas de incapacidad para contratar citadas.

Las personas jurídicas solo podrán ser adjudicatarias de contratos cuyas prestaciones estén comprendidas dentro de los fines, objeto o ámbito de actividad que, a tenor de sus estatutos o reglas fundacionales, les sean propios.

Los empresarios, además, deberán contar con habilitación empresarial o profesional que, en su caso, sea exigible para la realización de la actividad o prestación que constituya el objeto del contrato.

Las circunstancias relativas a la capacidad, solvencia y ausencia de prohibiciones de contratar a las que se refieren los apartados anteriores, deberán concurrir en la fecha final de presentación de ofertas y subsistir en el momento de perfección del contrato.

16.- LUGAR Y PLAZO DE PRESENTACIÓN DE PROPUESTAS

El expediente de esta contratación, así como la documentación técnica unida al mismo, podrá ser examinado en el Departamento de Secretaría de este Ayuntamiento, sito en la calle Donibane, 19, bajo, de 8,00 a 14,00 horas, todos los días hábiles a partir del siguiente a aquél en que aparezca publicado el anuncio de esta licitación en el Perfil del Contratante, y hasta el vencimiento del plazo

Euskadiko Kontratazio Publikoko kontratatzailearen profilera honako lotura honetatik sar daiteke: http://www.contratacion.euskadi.eus. Pasaiako Udaleko eta bere erakunde autonomoetako KONTRATATZAILEAREN PROFILA Eusko Jaurlaritzako kontratazio-sisteman sartuta dagoen arren, ondorengo helbidetik ere sar daiteke sistema horretara: http://www.pasaia.eus/eu/kontratatzailearen-profila

Proposamenak **soilik bitarteko elektronikoen bidez aurkeztuko dira, agiri honen 20. klausulan ezarritako eran**, Kontratatzailearen Profilean argitaratzen den iragarkian adierazitako epearen barruan.

Baldintza-agiriak eta agiri osagarriak kontratatzailearen profilean izango dira eskuragarri.

Baldintza-agiriei edo dokumentazio osagarriei buruzko informazio osagarria eskatzen badute lizitatzaileek, informazio hori emango zaie proposamenak aurkezteko ezarritako epea bukatu baino sei egun lehenago, baldin eta eskaera proposamenak aurkezteko epea bukatu baino hamabi egun lehenago egiten bada, gutxienez.

Proposamenak egiteko beharrezkoa bada lekura bertaratzea edo agiriari erantsitako dokumentazioa “in situ” kontsultatzea, eskaintzak eta parte hartzeko eskaerak aurkezteko epeak luzatu egingo dira, eragindako interesdunek proposamenak prestatzeko nahikoa denbora izan dezaten.

17.- PROPOSAMENAK AURKEZTEKO ERA

Prozeduran parte hartzeko eskatutako dokumentazioa eta dagozkion proposamenak artxibo edo gutun-azal elektronikoen barruan aurkeztuko dira; ezin dira paperean aurkeztu.

de presentación de proposiciones.

El acceso al perfil de contratante de la Contratación Pública de Euskadi se efectuará a través del siguiente enlace http://www.contratacion.euskadi.eus. Si bien el PERFIL DEL CONTRATANTE del Ayuntamiento de Pasaia y sus organismos autónomos se encuentra integrado en el Sistema de Contratación del Gobierno Vasco, el acceso a dicho sistema también podrá llevarse a cabo a través de la siguiente dirección: http://www.pasaia.eus/eu/kontratatzailearen-profila

Las proposiciones se presentarán **exclusivamente por medios electrónicos, en la forma establecida en la cláusula 17 del presente pliego,** dentro del plazo señalado en el anuncio de licitación publicado en el Perfil del Contratante.

Se podrán consultar en el perfil del contratante los pliegos y la documentación complementaria.

La información adicional sobre los pliegos o sobre la documentación complementaria que, en su caso, soliciten los licitadores será facilitada en el plazo de seis días antes de la fecha límite fijada para la recepción de proposiciones, siempre que la solicitud haya sido realizada al menos doce días antes del vencimiento del plazo de recepción de las proposiciones señalado anteriormente.

Cuando las proposiciones solo puedan realizarse después de una visita sobre el terreno o previa consulta «in situ» de la documentación que se adjunte al pliego, los plazos mínimos para la presentación de las ofertas y solicitudes de participación se ampliarán de forma que todos los que interesados afectados puedan tener conocimiento de toda la información necesaria para preparar aquellas.

17.- FORMA DE PRESENTACIÓN DE LAS PROPUESTAS

La documentación exigida para tomar parte en el procedimiento y las correspondientes proposiciones se presentará dentro de archivos o sobres electrónicos, sin que dicha presentación pueda hacerse en papel.

Eskaintzak aurkezteko BITARTEKO ELEKTRONIKOAK BAKARRIK erabiliko dira, honako aplikazio honen bidez: LIZITAZIO ELEKTRONIKORAKO SISTEMA; eta sistema hori hemen kokatuta dago: KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN PLATAFORMA CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA

La presentación de ofertas se realizará UTILIZANDO EXCLUSIVAMENTE MEDIOS ELECTRÓNICOS a través de la aplicación denominada SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA ubicada en KONTRATAZIO PUBLIKOA EUSKADIN PLATAFORMA CONTRATACIÓN PÚBLICA EN EUSKADI SISTEMA DE LICITACIÓN ELECTRÓNICA.

Proposamenak elektronikoki aurkezteko beharrezko informazioa eta zehaztapen teknikoak, zifratzea eta dataren baliozkotzea barne, Euskadiko Kontratazio Publikoaren Plataforman jasota daude (www. Contratacion.euskadi.eus).

La información y especificaciones técnicas necesarias para la presentación electrónica de las proposiciones, incluido el cifrado y la validación de la fecha, se encuentran alojadas en la Plataforma de Contratación Pública de Euskadi (www.contratacion.euskadi.eus)

Lizitazio elektronikoari buruzko zalantzak edo gertakariak konpontzeko zerbitzua: 945016298.

Servicio de soporte para resolver dudas o incidencias sobre licitación electrónica: 945016298.

Proposamenak gutun-azal hauetan aurkeztuko dira:

Los proposiciones constarán de dos sobres:

A GUTUN-AZALA:

SOBRE A

A GUTUN-AZALA: **AURRETIAZKO BALDINTZAK BETETZEN DIRELA EGIAZTATZEKO DOKUMENTAZIOA**
Aurretiazko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko dokumentazioaren gutun-azalean lizitatzaileek honako agiri hauek sartuko dituzte:

El sobre “A” se referirá a la **DOCUMENTACIÓN ACREDITATIVA DEL CUMPLIMIENTO DE LOS REQUISITOS PREVIOS.**
Dentro del sobre de “Documentación acreditativa del cumplimiento de requisitos previos”, los licitadores deberán incluir:

1.- Erantzukizunpeko adierazpena, SPKLren 140. artikuluan xedatutakoarekin bat; eredu honen arabera: Europako Kontratazio Agiri Bakarra (EKAB), urtarrilaren 5eko 2016/7 araudiaren bidez onartua. Adierazpena sinatuta aurkeztuko da, dagokion identifikazioarekin.

Agiri hori helbide honetan beteko da: https://visor.registrodelicitadores.gob.es, eta kontratatzailearen profilean argitaratutako artxiboaren bidez.

1.- Declaración responsable de conformidad con lo dispuesto en el artículo 140 LCSP, cuyo modelo consiste en el documento europeo único de contratación (DEUC), aprobado a través del Reglamento (UE) nº 2016/7, de 5 de enero, que deberá estar firmada y con la correspondiente identificación.
Su cumplimentación se realizará a través de la dirección https://visor.registrodelicitadores.gob.es y el archivo publicado en el perfil del contratante.

Bi sortetarako eskaintza aurkeztuz gero, erantzukizunpeko adierazpen bana aurkeztu beharko da sorta bakoitzeko .

En el caso de que se licite a ambos lotes, se deberá presentar una declaración responsable para cada lote.

Hala ere, enpresaria Sektore Publikoko Lizitatzaile eta Enpresa Sailkatuen Erregistroan edo horren baliokidea den erregistro autonomikoan izena emanda badago, SPKLren 341. artikuluan aurreikusitako irismenarekin, edo Europar Erkidegoko estatukide baten datu-base nazionalen batean ageri bada, agiriak elektronikoki biltegiratzeko sistema edo aurrez kalifikatzeko sistema gisa, eta organo horiek agiri horietara doako sarbidea badute; ez da beharrezkoa izango leku horietan jasotako datuen

No obstante, cuando el empresario esté inscrito en el Registro de Licitadores y Empresas Clasificadas del Sector Público o su equivalente autonómico con el alcance previsto en el artículo 341 LCSP, o figure en una base de datos nacional de un Estado Miembro de la Unión Europea, como un expediente virtual de la empresa, un sistema de almacenamiento electrónico de documentos o un sistema de precalificación, y éstos sean accesibles de modo gratuito para los citados órganos, no estará obligado a presentar

egiaztagiriak aurkeztea.

los documentos justificativos u otra prueba documental de los datos inscritos en los referidos lugares.

Enpresariak beste enpresa batzuen kaudimena edo bitartekoak erabiltzen baditu, Legearen 75. artikuluarekin bat, beste enpresa horiek ere erantzukizunpeko adierazpena aurkeztu beharko dute, kasu horietarako beharrezko informazioa jasotzen duena, Europako kontratazio agiri bakarrarekin bat .

En los casos en que el empresario recurra a la solvencia y medios de otras empresas de conformidad con el artículo 75 de la Ley, cada una de ellas también deberá presentar una declaración responsable en la que figure la información pertinente para estos casos con arreglo al formulario normalizado del documento europeo único de contratación.

Hainbat enpresari aldi baterako enpresa-elkartea osatuz aurkezten direnean, parte hartzen duten enpresa guztiek erantzukizunpeko adierazpena aurkeztuko dute, eta kasu horietarako Europako kontratazio agiri bakarrean eskatzen den informazioa jasoko dute adierazpenean.

En todos los supuestos en que varios empresarios concurran agrupados en una unión temporal, también se aportará una declaración responsable por cada empresa participante en la que figurará la información requerida en estos casos en el formulario del documento europeo único de contratación.

2.- Hainbat enpresari aldi baterako enpresa-elkarte batean bilduta aurkezten badira, aldi baterako enpresa-elkartea osatzeko konpromisoa aurkeztu beharko dute, agiri honen II. eranskinean jasotzen den ereduaren arabera, SPKLren 69. artikuluaren 3. atalean eskatzen denarekin bat; eta elkarte horren iraupena, gutxienez, kontratua iraungi artekoa izango da.

2.- Compromiso, en el caso de que varios empresarios concurran agrupados en una unión temporal, conforme al modelo que se recoge en el ANEXO II del presente pliego, de constituir la unión temporal, de conformidad con lo exigido en el apartado 3 del artículo 69 LCSP, con una duración que será coincidente, al menos, con la del contrato hasta su extinción.

Konpromisoa adierazteko idatzian honako hauek jasoko dira: elkartea osatzen dutenen izenak eta zirkunstantziak; horietako bakoitzaren parte-hartzea; eta kontratua esleitzen bazaie, formalki aldi baterako elkartea eratzeko konpromisoa. Agiri hori elkartea osatzen duten enpresa guztien ordezkariek sinatu beharko dute.

En el escrito de compromiso se indicarán: los nombres y circunstancias de los que la constituyan; la participación de cada uno de ellos, así como la asunción del compromiso de constituirse formalmente en unión temporal en caso de resultar adjudicatarios del contrato. El citado documento deberá estar firmado por los representantes de cada una de las empresas que componen la unión.

